

Illoroko Santa Marina basiliza *Barinaga* (Markina-Xemein)

Illoroko Santa Marina basiliza, herritarren artean Santa Mañe deitua, hormarri eta zurezko eraikin txiki bat da, erdi hegalerata eta malda bizian lurraren zelaigune estu baten gainean orekaz altxatua.

Oin lau angeluko hormarriko eraikin bat da, berorren barrualdean teilapea duen espazio batu estalia eta zurezko euskarritan, bi tarte eta hiru nabetan, banandua duena. Aurreko tarte aldaeralederako da eta, atzekoa, zerbait laburragoa, oso handia den koro baterako. Zoladura, adreilu gorrikoa da, XVII. mendean ohikoa zena.

Zutikako euskarrien egitura, haritzezko hamabi zutoin lodiez dago osatua, denak hormetara atxikita eta harrizko zarraketa egin aurretik altxatuak, salbu eta erdiko nabea definitu eta koroa eusten duten bi.

Nabe nagusiaren aurreko tarte, ganga batez dago estalia, beraren kolorean nerbidura eta horren barruko zurezko tarte dituen, nerbio zorrotzekin eta danbor itxurako zazpi itxidura-harriekin.

Baselizara sarbidea, puntu erdiko arku ertz biziko eta dobela laburretakoa da, 1629ko zurezko atearekin.

Elizako argi naturalak, oinetan irekitako bi gezileiho dira, bata beheko solairuan eta bestea koroan, eta buru konopialeko leiho bat urratua hegoaldean, aldaeraledearen gainean.

Zurezko goi-koro handia du, zeinaren aurrealdea oinarriturik baitago deskribaturiko zutoinen arteko lautan eta erdialdean kokaturiko eskuineko oin laguntzaile batean. Karela, ohol mihizatuzko eta tatxetex iltzaturikoa da, aurrealdean arrosekin apainduriko habe besoak oinarritzearekin eta, ertzean, oboide ildaskatuko kadenetekin, oliora margotuak gorrian eta beltzean. Aipatu habea, hauek ere margoturiko makla eta ildasken gainean dago oinarritua.

Koroa eusten duten erdiko zutoinek, alde desberdinetako zutabeak itxuratzen dituzte, zezen lodiko kapitelen eta ditizko koilareekin. Bestalde, indartzeko eskuineko oinak, kanoi-gangezko ertzak ditu, denteiloizko taila arinekin.

Kanpandorrea du ekialdeko horman oinarritua, enbor-piramidezko itxurakoa, eta euskarri gisako bi zutoin lodi okertuekin. Zurezko gaztelutxo bat da, oholezko egitura eta itxiturekin, bi alde elkarren arteko gainjarrietan egituratua: aretorako bata, eta kanpandorrerako goikoa, biek, ertz horzduneko jabalkoekin eutsitako hegaldura handiko hegaleko gainaldeekin. Kanpoko estalduraren zutikako oholtza guztia iltzaturik dago.


Illoroko Santa Marina, arkitektura herrikoiaren obra bat da, berorren meritu osoa dituen erdi hegalerata eta malda bizian estaltzeko sisteman, koroan eta kanpandorrean dituen lineako arkitekturazko lanetan. Nahiz eta, itxuraz, oso eraikin homogenea izan, benetan, aldi desberdinetan egindako obra desberdinak pilatzearen emaitza da. Alderik zaharrenak, hormak, leihoak eta barruko zutoinak bezala, XVI. mendearen hasierakoak dira, nahiz eta oraingo eliza, antzinagoko baten orube gainean eraiki izatea ezin den alde batera utzi. Lehen bakarrik eraikin zen, taila margotuz apaindua. Eta, geroagoko aldi batean, egokitzen kontsideratu zen terzeletezko

gurutzeriako ganga gehitzea, Erdi Aroaren amaierako flandestar sabaitzen kopia. Aldarezko teilatu edo «teilatutxo» hau, gotiko inspiraziokoa, baselizan sartzeko koroa apurtu egin zuena, XVI. mendearen bigarren laurdeneko obra dirudi, nahiz eta zenbait agiriren bidez konpondu egin zela esan genezakeen, eta baita armatu ere egin zezakeela 1631 bezalako data berankorreen, antzinagoko ereduak antzeratuz.

Kanpandorrea Domingo de Gandiagak eraiki zuen 1639an, orain dituen bi alde elkarren artean gainjarriekin, oraintsu zaharberri ondoren. Hala ere, urte askotan zehar, agian XVIII. mendetik hona, moztua egon zen, goiko dorretxorik gabe, apurkorregia eta haizeak eragingarria baitzen.

Burutzan erretaula nagusi barroko bat dago, zutabe salomondarrekoa, Pedro Larrinak 1683an landua, inoiz ere ez urreztatu edo polikromatu gabea. Hormaren erdialdea okupatzen duen Santa Marinaren irudia, sagarrondoko zurez egin dago eta antzinagokoa da, 1550 urte ingurukoa. Baselizako altzaterian, aldameneko bi erretaula ere bazeuden, Jose de Alcortak 1735ean diseinatuak eta olioko bi koadro, Aingeru Jagolearena (1632) eta Mesedetako Gure Amarena (1771).

Testua: Alberto Santana.



Illoroko Santa Marina basiliza (Barinaga)

Markina-Xemein. (*Barinaga auzunea*).

Nola heldu:

Markinatik Elgoibarrerantz abiatuko gara. Etxebarriko hirigunera iristean eskuineko desbiderapena hartuko dugu Eibarrerantz, eta errepide horretan zehar Barinaga auzunera iritsiko gara.

Bisiten ordutegia:

Normalean zabalik egon ohi da.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Markina-Xemein*)

- Markinako monumento multzoa.
- Jasokunde Andre Mariren eliza.
- Arretxinagako San Migel basiliza.

(*Etxebarria*)

- Antsoitegi etxea eta ola.
- Munibe jauregia.
- Iburguen garaia.